

Adjetibo gorriak

El Mundo del País Vasco, 1992-02-21.

Adjetiboetatik ezagunean, norbaiten edo zerbaiten kualitatea adierazten duena da. Honek nolakatzen du. Era askotakoa izan daiteke pertsona bi muturretako "ona" eta "gaiztoa" bitartean, baina puntetako dikotomia honetan erortzen gara erratzen. Hautabidea errazteko, koloretan jartzen dugu gainera aukera. Nire haurtzaroko filme mutuak hizketan jarriz gero kolore bizikoak bilakatu aurretik ere erabiltzen zen kolorea gizonen kualitate batzu erakusteko. Karlistadetan, liberal "beltzak" izan ohi ziren gure herrian erasotuenak; gero militarren altxamendu hartan, hauen aurka borrokatu ziren guztiak, "gorria"k ziren, apez eta gotzai euskaldunak barne. Ez ginen gorriak Franco-ren aurkako euskaldunak bakarrik, baina Espainian "rojo" baino Euskal Herrian "gorria" izateak bazuen konnotazio zabalagorik. "Gorria" adjetibo euskaldunak, landareen herdoila ere esan nahi du; eta sukar altua; izugarria dena; ipar haize zorrotza; borroka latza; barau gorria; damu gorria; gerra ankerra; gose gorria, bilhutsik geratzea eta beldur ikaragarria. Hauek eta beste batzu aipatzen ditu Mitxelenak berrikusitako Azkue-ren hiztegian. Ba "gorria" izandako gizonetako bat hil herri zaigu Donostian, Joxe Migel Zumalabe jauna. Bataiatua eta Elizaren babesean bizi izan eta inori kalterik egin gabe, bere herriaganako maitasunak eraginda honen hizkuntzaren mesedetarako, beste lankide batzu lagun, Donostian Santo Tomasen baitan jarritako ikastetxe bat sortuz gainera bere hizkuntzari jakintzako bideak egiten une gorrietan ahalegindu zena. Bekatu gorria, "Terrorista"ren lana, gaurko general den Jose Pablo Güil Pijuan jaunaren uste onez. Ez dugu, beraz ezer ikasi, ez dugu ezer ahaztu. Denak hilak bageunde bezala.